




# ESKUKO PLANA

**TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO  
HIRITARREN ARTEAN OSASUNA SUSTATZEKO  
ESKU HARTZEKO PLAN KOMUNITARIOA  
(2012-2014)**

***“Osasunaren sustapena jendeak eta jendearen ondoan egiten du,  
ez inposatu, ezta entregatu gabe ere.  
Pertsonak jarduteko duten gaitasuna handitzen du  
eta talde, erakunde zein komunitateena,  
osasunean erabakigarri diren faktoreengan eragiteko.”***  
**(Jakartako Deklarazioa. OME)**

## Justifikazioa

Bere hiritarren artean osasuna sustatzeko esku hartzeko plan komunitarioak hauetan oinarritu beharko litzateke:



Ottawako Kartan (1986), honela definitu zen **osasunaren sustapena**: “norbanakoei (komunitateei) osasunean eragiten dutenen gaineko kontrol handiagoa izateko bitartekoak ematen dizkien prozesua, eta horrela euren osasun maila hobetu”.


OMEren arabera, **osasunerako heziketa** beste bi ikuspegitik ere ikus daiteke. Alde batetik, osasunerako heziketa helburu bezala hartuta haxe da: hiritarrei osasuna (norbanakoarena, familiararena eta komunitatearena) sustatzeko eta babesteko trebetasunak eta abileziak ematea.

Beste aldetik, osasunerako heziketa bitarteko bezala hartzeak norbanakoa gaitzen laguntzen du, beraien beharrak zehazten eta osasun mailako helburu zehatz batzuk lortzeko proposamenak egiten aktiboki har dezaten parte.

**Mendekotasunen prebentzioaren** alorrean lan eremu handi bi badira. Alde batetik, drogen erabilera laguntzen edo errazten duten baldintzak identifikatzea eta aldatzea. Hau da, **arriku faktoreak** eta, bestalde, kontsumo horren aukera gutxitzen duten faktoreak aurkitzea eta bultzatzea, **babes faktoreak**.

Faktoreen sistematizazio honek gure esku hartzearen ikuspegi orokorra errazten digu eta nahi duguna koka dezakegu. Esaterako, irakasleekiko gatazkak konpontzeko entrenamendu programa, Udalaren web orrian leku bat izatea edo gazteekiko topaketak “gazte gunea” diseinatzeko.

## Bere hiritarren artean osasuna sustatzeko esku hartzeko plan komunitarioak hiru ardatz ditu oinarri:



*“Esku hartze komunitarioa ez da ezartzen den zerbaít. Eraiki egiten da, eta josi, loturak sortzeko”*(Lía Cavalcanti).

Mendekotasunen prebentzioaren barruan, **prebentzio komunitarioak** ez dakar eskola, familia edo lan eremuetatik kanpoko beste lan eremu bat, eta ez du beste prebentzio programa batzuk ez duten oinarri teoriko ezberdinik. Izan ere, ezberdintasunak faktore horien aldaketa

## ESKU HARTZEKO PLAN KOMUNITARIOA (2012-2014)

edo bultzada egiteko eran dautza, diseinuan eta garapenean ahalik eta gizarte eragile gehien bilduz. Aukera bat eta bestearen artean, bada “egiteko moduari” dagokion ezberdintasuna, ikuspegi komunitariotik hurbilago ala urrunago kokatzen gaituena,

Horregatik, prebentzio komunitarioaz ari garenean, ez dugu eskolakoaz, familiakoaz edo lanekoaz aparte jardun eremurik aipatzen. Ezabatu behar diren arrisku faktoreez ari gara, bultzatu behar diren babes faktoreez eta **parte hartzea** ezinbesteko osagaitzat duen estrategia jarraitzen duten ekintzez.

Ikuspegi komunitarioa etengabeko eraldaketan den prozesu gisa hartzen dugu, egiteko era ezberdina dakarrelako, geure burua “zerbitzu emaile” gisa ikustetik “geure komunitatean bitartekari” garelako ikustarazten diguten betaurreko gisa. Etengabeko elkarriketa eta negoziazio prozesua dakar, eta behar duen denbora eta ahalegin guztia eman behar zaio horri. Lineala ez den prozesua da, formula magistralik gabea, moldaketa etengabea eskatzen duena, aurrerapenak eta atzerapenak dituen, biraduna, oreka iraunkorrean.

Jarduera komunitarioak dira lurralde batean osasuna sustatzera eta biztanleriaren bizitza kalitatea zein gizarte ongizatea handitzera zuzenduta garatutako jarduerak, horretarako pertsonak eta taldeek euren arazoez, eskaerez eta beharrez arduratzeko duten gaitasuna bultzatuz.



## ESKU HARTZEKO PLAN KOMUNITARIOA (2012-2014)

Komunitatea prestazioen, proiektuen eta programa hartzaile gisa har daiteke edo prozesuaren protagonista gisa. Hartzaile edo protagonista izatearen arteko ezberdintasunek, aldi berean, ezberdintasun handiak dakartzate esku hartzearen helburuetan eta erabiltzen den ikuspegi metodologikoan.

Esku hartze komunitarioa lurralde bateko biztanleria osoari zuzendutako esku hartze gisa ulertu behar da, bestelako izenlagun bereizgarririk gabe. Soilik gizartean baztertuak diren talde edo kolektiboek zuzendutako ekintzekin identifikatu barik.

Organización Panamericana de la Salud (OPS) erakundeak emandako definizioaren arabera, **parte hartze komunitarioa** hauxe da: “Biztanleriak duen esku hartze prozesua arlo hauei dagozkien erabakiak hartzeko: bere osasun arloko beharrak asetzea, prozesuen kontrola izatea eta erabakitzeko gaitasunetik datozen ardurak eta betebeharrak barneratzea”. Parte hartze komunitarioa funtsezkoa da hiritarrek euren araziak ea beharrak identifikatzeko, lehentasunak finkatzeko, proposamenak egiteko eta erabakiak hartzen laguntzeko.

Funtsezkoa da osasunaren sustapena eta esku hartze komunitarioa uztartu egin behar direla ulertzea.

Ezin da osasuna sustatu komunitatearen parte hartzerik gabe. Ekintza hauek garatzeko era naturalena eta eraginkorrena osasunerako

heziketaren bitartekoa da. Heziketak berak zein osasunaren sustapenak aurreikusten dute banakakoen eta komunitatearen parte hartzea oinarritzko osagai estrategiko gisa.

**Osasunaren sustapenean dugun erantzukizuna halaberrez konpartitzen da lurraldean diren gainontzeko elementuekin.** Oso garrantzitsua da parte hartzearen genea jaiotzez ez dakargula kontuan izatea. Hiritarrek eta taldeek berau ahalbideratuko duten tresnak eta bideak behar dituen **prozesuan** parte hartzen ikasten dute, eta beti erabakiak hartzeko eta eragiteko gaitasunean oinarrituz. Erabakiak hartzen hasteko prozesu horretan, pertsonak eta taldeek autonomia eta jarduteko zein euren egoera hobetzeko gaitasuna hartzen dute.

Parte hartzea lurralde batean zehazten da eta bera posible egingo duten tresnak eta bideak behar ditu. Parte hartzea sustatzeaz ari garenean hau irudikatu behar dugu: biztanleriaren zati batek bere interesekin eta beharrekin, euren artean osasuna, lotutako botere partzelak bereganatzen ditueneko prozesu dinamikoa.



### Parte hartze prozesuetan koordinazioak duen garrantzia

Hiritarrek parte hartzen ikasteko prozesu batean parte hartzea, banaka zein taldekakoa.

Komunitatean esku hartzeko, beraz, komunitateak berak dituen gainontzeko zerbitzuak eta baliabideak izan beharko ditugu kontuan eta ikuspegi orokorra izan.

Lurralde batean hainbat zerbitzu eta profesional izaten da. Bakoitzak eginkizun zehatzak ditu, baina arazoak eta eskaerak ere partekatzen dituzte, arlo anitzeko programak eskatuko dituztenak

Zerbitzuak bestelako baliabide komunitarioekin koordinatzeak arazo horien aurrean eraginkorragoa izatea dakar.

Parte hartze komunitarioarako proiektu bateko eragileak hiru izan beharko lirateke:


- **Administrazioa**, legeria, planifikazioa, baliabideak eta finantzaketa bere esku dituen. Bereziki, ezin dugu toki administrazioa ahaztu, non bere kompetentzia esparruaren arabera jokatu duen.

- **Zerbitzuak**, komunitateak arazoei aurre egiteko dituen teknikariak eta profesionalak biltzen dituztenak. Udal gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak eta hezkuntza arlokoak bereziki. Osasunaren oinarriko gunetik kanpokoak izan arren, prozesuan baliagarri izan daitezkeen zerbitzuak/baliabideak ere izan behar ditugu kontuan. Horien artean, droga-mendekotasun unitateak, familia plangintzarako zentroak, osasun publikorako teknikariak, eskola laguntzarako bulegoak, etab.
- **Elkarte sarea eta hiritarrak** orokorrean izango dira prozesuaren protagonista. Kontuan izan behar da geure inguruan gizarte harremanen formalizazio maila baxua dela, eta horregatik sartu behar dira prozesuan formalki eraturako elkarteak eta taldeak, bestelako gizarte eragileekin eta liderrekin batera.

## Lehentasuneko esku hartzeko guneak



## Lehentasuneko esku hartzeko kolektiboak



## Lehentasuneko jardun-ildoak

EAEko Mendekotasunen VI. Planeko estrategiak barne hartzen dituen komunitate bateko hiritarren artean osasuna sustatzeko esku hartze komunitariorako zerbitzu batean lehentasuneko jardun-ildoak hauek dira:

### Eskaintzaren kontrola

- Drogen eta jokoaren presentzia gutxiagotzera bideratutako neurriak, indarrean den legearen barruan.

### Prebentzio unibertsala

- Biztanleriari orokorrean edo Inolako arrisku faktore zehatzak identifikatu gabeko pertsonen osatutako taldeei zuzendutako programak edo ekintzak.

### Prebentzio selektiboa

- Datu objektiboen arabera, drogekin edo jokoarekin arazoak sor dizaketen arrisku faktoreak dituzten biztanle talde zehatzei zuzendutako ekintza multzoa, drogen erabiltzaile diren edo mendekotasuna sor lezakeen beste edozein jardura duten alde batera utzita.

### Aholkatutako prebentzioa

- Droga kontsumoak eta beste portaera arazo batzuk dituzten (horien artean joko arazotsua izan daiteke) pertsonen zuzendutako esku hartzeak. Horien helburua ez da soilik droga kontsumoa gutxiagotzea, lotutako arazoak eta portaera horien agerpena ahalik eta gehien atzeratzea baita.



<p><b>PREBENTZIO UNIBERTSALA:</b> Babes faktoreak bultzatu eta jarrera zein ohitura osasuntsuak sustatzea.</p>	
<p><b>JARDUN-ILDOAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>ESKOLA ESPARRUA:</b> Mendekotasuna sor dezaketen ohituren aurrean babes faktoreak bultzatzea eta jarrera zein ohitura osasuntsuak sustatzea eskola esparruan ematen den hezkuntza prozesuaren bitartez</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>FAMILIA ESPARRUA:</b> Mendekotasuna sor dezaketen ohituren aurrean babes faktoreak bultzatzea eta jarrera zein ohitura osasuntsuak sustatzea familia esparruan ematen den hezkuntza prozesuaren bitartez</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>KOMUNITATE ESPARRUA:</b> Komunitateak babes faktoreak sustatzea mendekotasuna sor dezaketen portaeren aurrean, batez ere, gizartearen aldeko baloreen eta arriskuen ezagutza objektiboaren sustapena.</li> </ul>

JARDUN-ILDOA: ESKOLA ESPARRUA	
<b>HELBURU OROKORRA</b>	Mendekotasuna sor dezaketen ohituren aurreko babes faktoreak bultzatzea eta jarrera zein ohitura osasuntsuak sustatzea eskola esparruan ematen den hezkuntza prozesuaren bitartez.
<b>HARTZAILERAK</b>	Txorierriko udalerrietako ikastetxe guztietako ikasle eta irakasleak: Sondikako eskola (216 ikasle), Derioko eskola (275 ikasle), Zamudioko eskola (138 ikasle), Lezamako eskola (104 ikasle) eta Larrabetzuko eskola (126 ikasle). Txorierri Institutua (445 ikasle), Esperanza Alhama (110 ikasle), Txorierri Ikastegi Politeknikoa (355 ikasle), Lauro Ikastola (1.873 ikasle), Urdaneta Ikastetxea (1.900 ikasle), Bizkaia Ikastetxea (1.667 ikasle), Colegio Francés (1.006 ikasle), Munabe ikastetxea (470 ikasle), Ayalde Ikastetxea ((1.349 ikasle) eta Nuestra Señora de la Merced Ikastetxea (749 ikasle).
<b>1. ESTRATEGIA: Osasunerako heziketa eta droga-mendekotasunen prebentzio arloetako trebakuntza ematea Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei.</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. ekintza:</b> Ikasleei laguntzea bizitzarako gizarte trebetasunak hobetzen. Horretarako, eduki horiek lantzen dituzten eskola-baliabideak erabiliko dira: OSASUNKUME, "Lagunekin baratzean" programa...</li> <li>- <b>2. ekintza:</b> Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskola osasunaren arloan proposatutako gaietako batzuk lantzea, esaterako: higiena, ingurumen-osasuna, auto-estimua, tolerantzia, droga-mendekotasunen prebentzioa... Horretarako bitarteko ezberdinak erabiliko dira, adibidez, antzerki lan bat euskaraz.</li> <li>- <b>3. ekintza:</b> Osasunerako heziketan, ingurumen-osasunean eta erabiltzailearen heziketa arloko informazioa eta prestakuntza ematea Lehen Hezkuntzako ikasleei. Horretarako, osasun eta kontsumo tailerrak antolatuko dira, esaterako: "Osasun eta Kontsumo erakusketa".</li> </ul>	

- **4. ekintza:** Osasun zentroekin koordinatzea Txorierriko ikastetxeetako ikasgeletan “Bizitza ohitura osasuntsuak” lantzeko. Froga gisa, Sondikan hasi gara.

**2. ESTRATEGIA: Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei osasunerako heziketa eta droga-mendekotasun arloetako prestakuntza ematea.**

- **1. ekintza:** Txorierriko ikastetxeetako irakasleei prestakuntza eman nerabeen garapen psikosexualaren inguruan, esaterako, eta azterketa tresnak eman adingabeon bizitza prozesua uler dezaten. Adibidez: “Nerabeen garapen prozesua” izeneko programa.
- **2. ekintza:** Irakasleekin lantzea nerabeak bere berdinen taldearekin duen harremana, duen kokapena eskola esparruan eta ikaste prozesuaren aurrean.

**3. ESTRATEGIA: Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Trebakuntza Zikloetako ikasleei trebakuntza ematea osasunerako heziketa eta droga-mendekotasunaren prebentzio arloetan.**

- **1. Ekintza:** Drogazaletasuna, sexualitatea, osasuna, gatazkak ... eta era horretako gai ezberdinak lantzea zinemaren bide alternatibotik, esaterako: Irudi Biziak.
- **2. ekintza:** Ikasleei bizitzarako dituen gizarte trebeziak hobetzen laguntzea eduki horiek lantzen dituzten eskola-baliabideen bitartez: ORDAGO, INESI, ...
- **3. ekintza:** Gazteek arazoei eta gatazkei aurre egiteko trebetasun nahikoak har ditzaten laguntzea, elkarriketan, errespetuan, arduraren eta komunikazioan heziz, adibidez, “Gatazkei zelan aurre egin” proposamenarekin.
- **4. ekintza:** Informazioa ematea eta sexualitatearen inguruan lan egiteko moduko esparrua sortzea, zalantzak eta ezagutzak partekatzea afektibitate-sexu heziketarako programen bitartez. Familia plangintzarekiko elkarlana.
- **5. ekintza:** Derioko Osasun Zentroko planifikazio zentroa ezagutaraztea, ikasleek informazioa lor dezaten eta euren zalantzak argi ditzaten antisorgailuez, sexu-transmisiozko gaixotasunez, ...
- **6. ekintza:** Gazteak HIESaren zein sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuen gainean sentsibilizatzea eta informatzea.

<p>- <b>7. ekintza:</b> Ikastetxeekin elkarlanean, ikasleen esku jartzea azterketek sortzen duten estresaren kudeaketarako informazioa eta baliabideak.</p>
<p><b>4. ESTRATEGIA :</b> Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Trebakuntza Zikloetako irakasleei trebakuntza ematea osasunerako heziketa eta droga-mendekotasunaren prebentzio arloetan</p>
<p>- <b>1. ekintza:</b> Osasunaren heziketarako eta droga-mendekotasuna prebenitzeko curriculum proiektuak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko aholkularitza eta laguntza ematea irakasleei.</p>
<p><b>5. ESTRATEGIA:</b> Ikastetxearekin batera koordinatzea, orain arteko ekintzak garatzeko orduan, Ongizate taldeak eragin zuzena daukan programetan.</p>
<p><b>6. ESTRATEGIA:</b> Adingabekoen familia-arduradunen elkarteekin koordinatzea neska nerabeek kirolak, baloreak garatzeko ematen dituen aukerak aprobetxa ditzaten, gizarteratzea ahalbidetzeko, hala nola, elkartasuna, elkar ulertzea, kide izateko sentimendua eta antzeko baloreak sustatuz.</p>

JARDUN-ILDOA: FAMILIA ESPARRUA	
<b>HELBURU OROKORRA</b>	Mendekotasuna sor lezaketen portaeren aurreko babes faktoreak bultzatzea eta jarrera zein ohitura osasuntsuak sustatzea, familia esparruan ematen den heziketa prozesuaren bitartez.
<b>HARTZAILERAK</b>	Mankomunitateko edozein udalerritan bizi diren adingabeen familia-arduradunak.
<p><b>1. ESTRATEGIA: Adingabekoen familia-arduradunak osasunerako heziketa eta droga-mendekotasunen prebentzio arloetako prestakuntza ematea, trebakuntza guneak sortuz ( Adingabekoen familia-arduradunen eskola, ...)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. ekintza:</b> Adingabekoen familia-arduradunak kolektiboan sor daitezken proposamenak, eskaerak eta iradokizunak jaso adingabekoen familia-arduradunen elkarrekin kontaktuaren bitartez.</li> <li>- <b>2. ekintza:</b> Seme-alaben hezkuntzan eta sozializazioan bereziki garrantzitsuak diren gaietan sakontzea prestakuntza ikastaroak eginez.</li> <li>- <b>3. ekintza:</b> Adingabekoen familia-arduradunak beraien hezitzaile lanetarako dituzten trebeziak eta gaitasunak garatzen lagungarri izango dituzten jokaera zehatzak lantzea.</li> <li>- <b>4. ekintza:</b> Adingabekoen familia-arduradunak rola indartzea familia esparrurako egokiak diren heziketa ereduak barneratzeko: “defraudatu gabe hezi”, “emozio-adimenez hezi”, ...</li> <li>- <b>5. ekintza:</b> Adingabekoen familia-arduradunei prestakuntza eta informazioa eman elkarrizketak eta komunikazioak familia elkarbizitza hobetzeko duten oinarriko garrantziaren gainean, berorren kalitatea hobetzen dute eta.</li> </ul>	

**2. ESTRATEGIA: Beraien heziketa lana eta prebentziorako eragile gisa dutena erraztuko dizkieten tresnak eta jokabideak eskaintzea adingabekoen familia-arduradunei, tokiko komunikabideen bitartez (web orria, udal aldizkariak, ...).**

- **1. ekintza:** Esparruarekin lotura duten edukidun artikulak sortzea tokiko komunikabideetan: familiaren eta eskolaren arteko elkarrekintzaren eta arau zein portaera argiak eta arrazoizkoak ezartzearen garrantzia lantzea.
- **2. ekintza:** Web orria egindako edo egiteko jarduerekin elikatzea.
- **3. ekintza:** Tresna horien bitartez, adingabekoen familia-arduradunei honelako familia egoerak bideratzeko irizpideak ematea: inkomunikazioa, gatazkak eta arrisku portaerak.

**3. ESTRATEGIA: Euren seme-alaben heziketan kezkak edota zailtasunak aurkitzen dituztenean, orientazioa eta baliabideak zein tresnak eman.**

- **1. ekintza:** Aholkularitza gunea sortzea.
- **2. ekintza:** Txorierriko Esku Hartze Komunitariorako Zerbitzuak garatutako ekintzen eta programen ezagutza sustatzea familien artean (hitzaldiak, adingabekoen familia-arduradunen eskola ...)

**4. ESTRATEGIA: Esku Hartze Komunitariorako Zerbitzutik zein beste batzuetatik adingabekoen familia-arduradunentzako antolatutako ekintzen, tailerren, ... berri eman.**

- **1. ekintza:** Adingabekoen familia-arduradunen elkarteei eta beste familia batzuei egingo diren ikastaroen, hitzaldien eta tailerren berri eman udal bakoitzaren hileroko buletinen bitartez, mankomunitateko web orrian, etab.

JARDUN-ILDOA: KOMUNITATE ESPARRUA			
<b>HELBURU OROKORRA</b>	Komunitateak babes faktoreak sustatzea osasunerako kaltegarriak diren portaeren aurrean, batez ere, gizartearen aldeko baloreak eta arriskuen ezagutza objektiboa sustatuz.		
<b>HARTZAILEAK</b>	Gazteak Umeak	Biztanleria, oro har Udal sailak / baliabideak	Osasun eragileak Adineko pertsonak
<b>1. ESTRATEGIA: Umeen kolektiboarekin prebentziorako eta osasuna sustatzeko lana ezartzea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. ekintza:</b> Umeen guneetan, alde ludikoaz gain alde hezitzailea eta osasunaren sustapena txertatzea.</li> <li>- <b>2. ekintza:</b> Umeentzako osasungarri diren aisialdirako baliabideen garapena sustatzea.</li> <li>- <b>3. ekintza:</b> Umeekin esku hartzen duten profesionaleri eta elkarteei zuzendutako prestakuntza ekintzak egitea, beraien esparruetan osasunaren aldea txertatzeko.</li> </ul>			
<b>2. ESTRATEGIA: Gazteriarekin lan prebentiboa eta osasuna sustatzekoa ezartzea.</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. ekintza:</b> Gazteen guneetan, alde ludikoaz gain alde hezitzailea eta osasunaren sustapenarena txertatzea.</li> <li>- <b>2. ekintza:</b> Gatazkak konpontzeko estrategiak proposatzea gazteen elkarte eta taldeetan.</li> <li>- <b>3. ekintza:</b> Gazte Planean prebentzio neurri zehatzak jasotzea.</li> </ul>			
<b>3. ESTRATEGIA: Ume eta gazte taldeekin esku hartzen duten gizarte eragileei aholkularitza eta osasun eragile gisako trebakuntza eman (aisialdi taldeak, ludotekak, gaztelekua, kirol elkarteak, etab. )</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. ekintza:</b> Ludoteka, Gaztegune eta abarretako hezitzaileak drogen kontsumoari lotutako egoerak euren roletik kudeatzeko prebentzio trebetasunak garatzeko aholkularitza eman.</li> <li>- <b>2. ekintza:</b> Adingabeekin lan egiten duten eragile ezberdinekiko koordinazioa sustatzea, esaterako, Osasun Zentroa eta ikastetxeak.</li> </ul>			

- **3. ekintza:** Nerabeentzako eta gazteentzako osasuntsuak diren aisialdirako baliabideen garapena sustatzea gazteria sailarekin batera.
- **4. ekintza:** Gazteekin esku hartzen duten profesionali eta elkarteei zuzendutako trebakuntza ekintzak garatzea osasunaren aldea txerta dezaten euren esparruetan.

**4. ESTRATEGIA: Udalaren sail eta baliabide ezberdinei zein erakunde laguntzaileei aholkularitza ematea Esku Hartze Komunitariorako Plana egoki burutu dadin, esku hartzea integrala eta koordinatua izan dadin.**

- **1. ekintza:** Aisialdi guneen kontrola handitzea, leku seguruagoak izan daitezen.
- **2. ekintza:** Osasun zentro ezberdinekin elkarlanean aritzea droga-mendekotasunaren, sexualitatearen eta erabiltzaileen osasunari lotutako beste arazo batzuen inguruko prebentzio zein sentsibilizazio kanpainak egiteko.
- **3. ekintza:** Udal baliabideekin, hirigintzarekin, hiritarren segurtasunarekin, auzo elkarteekin, ... koordinatzea hirigune segurua eta osasuntsua eskaintzeko, portaera arazotsuak dakartzaten baldintzak sortzea ekiditeko.
- **4. ekintza:** Sailen arteko parte hartzea eta koordinazioa erraztea, droga-mendekotasunen politika orokorra erraztuz era berean.
- **5. ekintza:** Udalei laguntzea edari alkoholduen eta tabakoaren publizitatearen eta kontsumoaren sustapena kontrolatzeko.
- **6. ekintza:** Administrazio publikoekin elkarlanean aritzea eta irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuak sustatzea. Eusko Jaurlaritzak (Droga Gaietako Zuzendaritza, Justizia Saila, ... ) udalaz gaindiko programen burutzean bereziki lagunduko dute.
- **7. ekintza:** Txorierri Mankomunitateko Berdintasunerako teknikariarekin koordinatzea osasun fisikoaren zein burukoaren inguruan emakumeei zuzendutako programak eta ekintzak garatzeko.
- **8. ekintza:** Bizitza ohitura osasuntsu gisa sustatzea kirola, eskola esparruan inguruko kirol instalazioen arduradunekin koordinatutako ekintzen bitartez.



**5. ESTRATEGIA: Pertsona nagusien kolektiboaren barruan, osasuna sustatzeko lana ezartzea.**

- **1. ekintza:** Hirugarren adinekoen artean sustatzea osasunerako eta ongizaterako ekintzak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin, pertsona nagusien elkarteekin eta abarrekin koordinatuz.

**6. ESTRATEGIA: Komunitate bateko kideen artean osasuna sustatzeko programak eta ekintzak sustatzea eta burutzea.**

- **1. ekintza:** Balore positiboak eta gizartearen aldekoak sustatzea, euren artean osasun integrala zaintzea (fisikoa, burukoa eta harreman mailakoa), arrisku faktoreen aurrean (gehiegizko kontsumismoa, hedonismoa, indibidualismoa, ...).
- **2. ekintza:** Pertsonen, familiei eta taldeei informazioa ematea komunitatean eskuragarri diren gizarte baliabideez eta, kasua denean, horietara bidaltzea edo bideratzea.
- **3. ekintza:** Sentsibilizatorako eta prebentziorako kanpainak garatzea egun berezietan, esaterako: HIESaren Aurkako Nazioarteko Egunaren kanpaina, Tabakorik Gabeko Nazioarteko Egunaren kanpaina, etab.
- **4. ekintza:** Txorierri eskualdea osatzen duten udalerrri bakoitzeko kultura sailarekin elkarlana eta koordinazio iraunkorra ezartzea, biztanleriari, oro har, zuzendutako programak eta proiektuak garatzeko, esaterako, autoestimulari eta komunikazio positiboari buruzko ikastaroak.

**7. ESTRATEGIA: Ordenantza bat egitea Txorierriko gazteen lokalak arautzeko.**

- **1. ekintza:** Gazteen lokalak gutxieneko baldintza batzuk bete ditzaten ziurtatzea, bizigarritasunari, higienerari, erosotasunari zein segurtasun neurriei dagokienean.
- **2. ekintza:** Lokalen erabilera eta bizilagunek eragozpenik ez izateko eskubidea bateragarri egitea. Lokalen erailera bizilagunen eskubideekin bateragarri egitea dagokion neurri zuzentzaileak hartuz.
- **3. ekintza:** Plan honen bitartez gazte lokalak sortzen duten arazo kopurua jaiste eta elkarbizitza bultzatzea.

- **4. ekintza:** Elkarbizitza plana egitea ahalbideratuko duten lokalen erabiltzaile diren gazteentzako parte hartze esparruak sortzea.
- **5. ekintza:** Lokaletako gazteekin lotura sortzea osasunaren sustapenarekin lotutako gai ezberdinak lantzeko.
- **6. ekintza:** Gazte lokalek sortzen duten arazo kopurua gutxitzea eta elkarbizitza bultzatzea.
- **7. ekintza:** Lokalaren erabilerarako baldintzen inguruan gutxieneko konpromisoa lortzea.
- **8. ekintza:** Lokalaren barruan garatuko diren jardueren inguruko konpromisoa lortzea.
- **9. Ekintza:** Lokaletan garatzen diren jarduerak ezagutzea eta eurekin lantzea zalantzak edo gatazkak sor ditzaketen gaiak.
- **10. ekintza:** Inplikaturako sektoreen (gazteak, jabeak, auzokoak, politikariak, ... ) ekarpenak, proposamena eta interesak jasotzea.

**7. ESTRATEGIA: Kontratazio irizpideak: Enpresa bat kontratatzerakoan, aipaturako ekintza desberdinak garatzeko, "Eskuko Plana"-ren helburuak bermatu beharko lituzke: gazteria, aisialdi esparruetan eta abar.**

<p><b>HELBURUA: PREBENTZIO SELEKTIBOA ETA GOMENDATUA:</b> Egoera ahulean bizi diren pertsonen eta kolektiboen beharretara moldatutako prebentzioa eskubide gisa bermatzea arazoak sor ditzaketen arrisku faktoreak dituzten biztanleria-talde zehatzei zuzendutako ekintzen bitartez, droga erabiltzaileak edo mendekotasuna sor dezakeen bestelako jarduerarik izan ala ez.</p>	
<p><b>JARDUN-ILDOAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>ESKOLA ESPARRUA:</b> Mendekotasuna sor dezaketen portaerei eta beraiekin lotutako egoerei dagozkien babes faktoreen sustapena eta arrisku faktoreen gutxitzea ahulak diren ikasleengan, portaera arazotsuak ekidin eta gutxitu asmoz.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>FAMILIA ESPARRUA:</b> Euren ahulezia eta arrisku baldintzak gutxitzeko familiak gaitu eta jabetu.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>KOMUNITATE ESPARRUA:</b> Arrisku faktoreak eta mendekotasuna sor dezaketen jarrerei lotutako arriskuak gutxitu egoera ahula eta bazterketa arriskua duten pertsona zein kolektiboengan babes esparru komunitarioetan, ebazpen judizialak ezartzekoetan, ematen den prozesu hezitzailearen bitartez.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>JAIETAKO ESPARRUA:</b> Arrisku kontsumoak zein drogen kontsumoari lotutako arriskuak era ludikoan gutxiagotzea, bereziki horien erabiltzaile gazteen artean.</li> </ul>

JARDUN-ILDOA: ESKOLA ESPARRUA	
HELBURU OROKORRA	Mendekotasuna sor dezaketen portaerei eta horiei lotutako egoerei dagozkien babes faktoreen sustapena eta arrisku faktoreen gutxiagotzea egoera ahula bizi duten ikasleengan, portaera arazotsuak ekidin eta gutxiagotzeko.
HARTZAILEAK	Euren ezaugarriengatik egoera ahulean bizi diren adingabe eskolatuak.
<p><b>1. ESTRATEGIA:</b> Egoera ahulean bizi diren ikasleen artean proiektu integralak garatzea arrisku faktoreak gutxiagotu eta babes faktoreak sustatu ahal izateko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. ekintza:</b> Ohitura osasuntsuak sustatzen dituzten proiektuak gauzatzea Sondikako osasun zentroarekin batera egoera ahulagoan dauden pertsonen artean, esaterako, Ikastegi Politeknikoko emakumeak.</li> <li>- <b>2. ekintza:</b> Egoera ahulagoan dauden gazteen artean erretzeari uzteko jarduerak sustatzea Osakidetzaren laguntzarekin.</li> <li>- <b>3. ekintza:</b> Droga-mendekotasun arloan gazteak sensibilizatzea eta prestatzea alkoholaren eta drogen kontsumoarekin lotutako arriskuak gutxitzeko programen bidez, esaterako, "Riesgo-alcohol", "Riesgo-drogas" programak...</li> <li>- <b>4. ekintza:</b> "Polikontsumoa gazteengan" gaiaren inguruko sensibilizazioko hitzaldiak antolatzea.</li> <li>- <b>5. ekintza:</b> Txorierriko zentroetan sensibilizazioko eta prebentzioko kanpainak sustatzea egun zehatzetan, esaterako, HIESaren Aurkako Nazioarteko Egunean, eta Tabakorik Gabeko Nazioarteko Egunean. Jarduera horietan gazteen parte har dezakete kanpainen antolakuntzan (kartelak egiten...)</li> </ul>	

**2. ESTRATEGIA: Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Prestakuntza Ziklo, eta abarretako irakasleei aholku eman eta laguntzea, ikasleen droga-kontsumo problematikoaren aurrean nola jardun behar duten jakin dezaten.**

- **1. ekintza:** Laguntzako guneak sortzea, ikasleen artean kontsumo problematikoetan aplikatzeko tresnak izan ditzaten eta esku hartze egokia egin dezaten (antzemate goiztiarrerako tresnak...)
- **2. ekintza:** Zentroetako irakasleekin **aldian-aldian bilerak egitea**, ikasleen droga-kontsumoaren inguruko informazioa trukatzeko eta esku hartzerako ekintza zehatzak sortu eta zuzentzeko.

**3. ESTRATEGIA: Hezkuntza-zentroak “drogarik gabeko espazioak” izatea sustatzea, legezko nahiz legez kanpoko drogak), indarrean den araudia betetzea erraztuz, osasuna babesteko neurri gisa**

- **1. ekintza:** Bilerak egitea zentroetako zuzendaritzarekin, “drogarik gabeko guneak” buruz indarrean den araudiaren berri emateko.

JARDUN-ILDOA: FAMILIA ESPARRUA	
HELBURU OROKORRA	Familiak prestatu eta jabetun egitea, hain egoera ahulean egon ez daitezen eta arriskua gutxitzeko.
HARTZAILEAK	Egoera ahulean dauden adingabekoen familia-arduradunak.
<p><b>1. ESTRATEGIA: Droga kontsumoaren eta beste kontsumo mota batzuen inguruko arazo larriak dituzten gazteen adingabekoen familia-arduradunei laguntzea eta aholku ematea, hezkuntzaren ikuspegitik nola esku hartu behar duten jakin dezaten.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. ekintza:</b> Droga-kontsumo problematikoen aurrean, familiei lagundu eta aholku ematea hezkuntzaren ikuspegitik, banan-banako arreta zuzena eskainiz.</li> <li>- <b>2. ekintza:</b> Mankomunitatearen gizarte eta hezkuntzako taldearekin koordinazio etengabea mantentzea, droga-mendekotasun arazoak dituzten familiei diziplina anitzeko talde batek lagundu diezaien, eta arazo sorburuak estalita gera daitezen.</li> </ul>	
<p><b>2. ESTRATEGIA: Nerabeen adingabekoen familia-arduradunei laguntzea eta aholku ematea osasunerako heziketan arloan</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. ekintza:</b> Familiari lagundu eta aholku ematea gizarteratze eta hezkuntzako eginkizunetan, batez ere, osasun arloan banan-banako arreta eskainiz.</li> <li>- <b>2. ekintza:</b> Osasun arloan laguntza eta aholku ematea Txorierriko osasun-zentroetako langileekin koordinatuta, eta beharrezkoa denean, beste zentro batzuetara bideratzea.</li> </ul>	

JARDUN-ILDOA: KOMUNITATE ESPARRUA	
HELBURU OROKORRA	Gizartean egoera ahulean edo baztertuta geratzeko zorian dauden pertsonengan eta kolektiboetan mendekotasun-jokabideekin lotutako arriskuak gutxitzea babes-espazio komunitarioetako hezkuntza prozesuen bidez, neurri judizialen bidez ...
HARTZAILEAK	Egoera ahulean dauden pertsonak eta kolektiboak
<p><b>1. ESTRATEGIA: Droga-mendekotasun arloan (salerosketa, alkoholaren kontsumoa bide publikoan, debekatuta dagoen lekuetan erretzea, ...) indarrean dauden araudiak betetzen direla zaintzea.</b></p>	
<p>- <b>1. ekintza:</b> Herritarren segurtasunerako arduradunekin lankidetzan aritzea droga-mendekotasun arloan indarrean dauden araudiak betetzen direla kontrolatzeko, batez ere, gazteei dagokienez.</p>	
<p><b>2. ESTRATEGIA: Droga kontsumo arazoaren inguruan arrisku-egoeran dauden gazteekin lan egiten duten gizarte-eragileak trebatzea eta aholku ematea (gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko teknikariak, elkarreak...)</b></p>	
<p>- <b>1. ekintza:</b> Osasunaren sustapenari buruzko ikastaroak eta solasaldiak antolatzea gazteen begiraleentzat, betiere arriskuen murrizketaren ikuspegitik.</p>	
<p><b>3. ESTRATEGIA: Droga-kontsumo arazoak dituzten pertsonak sensibilizatzea eta informazioa ematea eskura dituzten tratamenduei buruz.</b></p>	
<p>- <b>1. ekintza:</b> Aholkularitza eta Etorkintza, Proyecto Hombre, Manuene, Hirusta eta beste baliabide batzuetara bideratzea, Mankomunitatearen gizarte-zerbitzuetatik eskatzen duten Txorierriko pertsonentzat.</p>	

- **2. ekintza:** Egoera ahulean bizi diren eta/edo gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden adingabe, gazte eta familien artean jokabide problematikoak izan ditzaketenak antzeman eta koordinatzea, eta, beharrezkoa bada, Mankomunitateko gizarte-hezitzaile eta gizarte-langileengana bideratzea.

**4. ESTRATEGIA: Lonjekin batera jarduteko prozesua erraztea, lonjen funtzionamendua arautzeko eta inguruarekiko bizikidetza hobetzeko.**

- **1. ekintza:** "Lonjakidetza" prozesuan parte hartzen duten alderdien artean sor daitezkeen arazoetan bitartekari izatea.
- **2. ekintza:** Lonjen erabiltzaileei jokabide arriskutsuen ondorioei buruzko informazioa ematea.

**5. ESTRATEGIA: Erretzeari uzten laguntzen duten trebetasunak herritarren eskura jartzea.**

- **1. ekintza:** Erretzeari uzteko espazioak garatu eta antolatzea, talde horietan parte hartzen dutenek erretzeari uzten edo gutxiago erretzen laguntzeko.

**6. ESTRATEGIA: Osasuna eta ongizatea sustatzea helduen artean eta, batez ere, emakumeen artean.**

- **1. ekintza:** Berdintasun Planean osasuna sustatzeko jarduerak sartzeari.
- **2. ekintza:** Emakume-elkarteen eta bestelako bidez jarduerak sustatzea.



JARDUN-ILDOA: JAI ETA AISIALDIKO ESPARRUA	
HELBURU OROKORRA	Kontsumo arriskutsuak eta jolas moduko droga-kontsumoari lotutako arriskuak gutxitzea, batez ere, bi kontsumo mota horietan ari diren gazteen artean.
HARTZAILEAK	Gazteak, batez ere, aisialdian daudenean.
<p><b>1. ESTRATEGIA: Gau-aisialdiko lokaletako langileak prestatzea, arriskuen murrizketan inplikatzeko.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1. ekintza:</b> Langileak prestatzea eta informazioa ematea droga-mendekotasunari lotutako araudi orokorraren betearazpenaren inguruan.</li> <li>- <b>2. ekintza:</b> Gau-aisialdiko lokalek Mankomunitatearekin eta udalekin lan egin dezaten lortzea, edari alkoholikoen eta tabakoaren publizitatea eta haien kontsumoaren kontrolean.</li> <li>- <b>3. ekintza:</b> Harremanetan jarraitzea gau-aisialdiko lokalekin, edari alkoholikoen eta tabakoaren hornidura eta salmenta kontrola ditzaten, batez ere, adin txikikoen artean, gai hori arautzen duten udal ordenantzak betearaziz.</li> <li>- <b>4. ekintza:</b> gaueko lokalei informazioa ematea tabakorik gabeko guneei buruzko araudia bete dezaten.</li> </ul>	

**2. ESTRATEGIA: Aisialdian eta jai giroan arriskuak aurreikusi eta gutxitzeko ekintzak eta proiektuak sustatzea.**

- **1. ekintza:** Alkoholemiaren prebentzioko kontrolak egitea aisialdirako guneetan.
- **2. ekintza:** Txorierriko jaietan sexu-transmisiozko gaixotasunak saihesteko preberbatiboaren erabileraren inguruan sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak egitea.
- **3. ekintza:** Substantzien eta aisialdian dituzten eraginei buruzko informazio jarduerak sustatzea.

**3. ESTRATEGIA: Lonjetan prebentzio-lana sustatzea substantzien arriskuak gutxitzeko, informazioa emateko eta substantzia horien segurtasuna sustatzeko esku hartzeen bidez.**

- **1. ekintza:** Lonjetako gazteekin zenbait gairen inguruan eztabaidatzeko eta parte hartzeko guneak sortzea; droga-mendekotasuna, sexu-transmisiozko gaixotasunak...
- **2. ekintza:** Lonjetako gazteekin etengabe harremanetan egotea adingabekoen familia-arduradunei web orriaren bidez, beraiekin lanean jarraitzeko eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko.
- **3. ekintza:** Lokalek bete beharreko gutxieneko baldintzei buruzko informazioa ematea gazteei: azpiegiturak, erantzukizun zibileko aseguruak, kontratua, zarata, espazio seguruak izateko higieena...

**KUDEAKETA SISTEMA:**

Mankomunitateak ekitaldi bakoitzaren hasieran, programazio-dokumentu bat egin beharko du. Bertan artaz estrategikoak, jarduera esparruak eta arloak ezarri eta betebeharreko helburuekin, hasiera bateko adierazleekin eta oinarrizko aurrekontuarekin uztartu beharko ditu.



## ESKU HARTZEKO PLAN KOMUNITARIOA (2012-2014)

### **ANTOLAKUNTZA EGITARUA:**

Eskuko programaren jarraipena egitea, Mankomunitatearen Ongizate Batzordeari dagokio.